

emun

Euskara eta
berrikuntza soziala



ETXAURIko Udala
Ayuntamiento de **ETXAURI**

Sarbil: lurraldea, energia eta etorkizuna

BIGARREN SAIOAREN AKTA. 2026/04/22

2026ko apirilak 27



e

Aurkibidea

1. SAIOAREN EZAUGARRIAK	3
2. SAIOAREN GARAPENA.....	3
2.1. SARRERA.....	3
2.2 INPLIKATUTAKO ALDERDIEN AURKEZPENAK	4
2.3. GALDERAK ETA ERANTZUNAK.....	6
2.5. BALORAZIOA.....	9
ERANSKINAK.....	10

1. SAIOAREN EZAUGARRIAK

Eguna	2026ko apirilaren 22a, Etxauriko Udala
Ordutegia	18:00-20:20
Asistentzia	35 pertsona (15 emakume eta 20 gizon)
Dinamizatzaileak	Uxune Alustiza, Joseba Beltza eta Mikeldi Zeberio (Emun)

2. SAIOAREN GARAPENA

2.1. SARRERA

Sarbil, lurraldea, energia eta etorkizunaren deliberazio prozesuaren bigarren saioa.



Oraingo honetan, 15 minutuko azalpen batean inplikaturako aldeak entzungo ditugu, ordena honetan:

- 1.- Sarbil-Eguzki SL
- 2.- Etxauriko Udala
- 3.- Etxaurindarra Elkarte
- 4.- Etxauribar Klima eta Burujabetza

Aurkezpenak amaitu ondoren, galderen txanda irekiko da. Txanda hori taldeka antolatuko da, eta talde bakoitzak erabakiko du zein galdera egingo dizkien aurkezleei.

Egindako galderen erantzunekin amaituko da saioa.

Oharra:

Dokumentu honetan saioan zehar emandako galderak eta erantzunak jaso ditugu. Aurkezpenak dokumentu honetan eranskin gisa gehitu dira (akta bidali den unean ez dugu Etxauribar Klima eta Burujabetzaren azalpenik jaso. Horregatik ez dago eranskinen artean).

2.2 INPLIKATUTAKO ALDERDIEN AURKEZPENAK

SARBIL-EGUZKI SL



ETXAURIKO UDALA



ETXAURINDARRA ELKARTEA



ETXAURIBAR KLIMA ETA BURUJABETZA



2.3. GALDERAK ETA ERANTZUNAK



SARBIL-EGUZKI SL

Galderak:

- Prest al zaudete baldintza/marra gorri bezala jartzeko, hau da, proiektua herritarren parte-hartzearen edo tokiko parte-hartzearen %51tik gorako portzentajearen osatuta egotea eta tokiko interesak bermatzea?
- Nola ziurtatu %51ko partaidetza soziala? Nolakoa izango litzateke parte-hartzea, proiektuan parte hartzeko zenbat € pentsatu dira?
- Negozio eredua (kudeaketa % 51/autokontsumoa)
- Partaidetza-bermearen hasierako inbertsioa (tokikoa - publikoa)
- Nola ziurtatu energiaren azken erabilera?
- Prest al zaudete agrovoltaikoaren baldintzak/ziurtagiria zorrotz betetzeko marra gorri gisa?
- Baliteke proiektuak tamaina txikiagoa izatea (alegazioen ondorioz, adibidez), sustatzaileak bideragarria izaten jarraituko du? agian bateriak gehitu beharko ditu?
- Proiektua modernizatzeko prozesua (bateria, hidrogenoa, etab.)?
- Garatzeko epeak?
- 50 cm > 100 cm lurperatzea

Erantzunak:

- Legeak eskatzen duena da gutxienez %21 eta gehienez %51. Nola bermatu %51, ez dakigu. Beraz, prezioa ere ez dakigu.
- Proiektua oraindik ez dago ekonomikoki itxita. Aldaketak sortu dira hasieratik, teknologia oso azkar ari baita aldatzen. Oraindik goiz da partaidetzaren kostua kalkulatzeko.
- Bederatzi parke dira, bederatzi proiektu. Horrek aukera ematen du kontsumoa eta jabetza bezeroaren arabera segmentatzeko (parkeak bezero taldeen arabera).

- Proiektu honetan oso litekeena da baterien biltegiatze bat sortu behar izatea. Asmoa da bateriak hemen ez egotea, baizik eta beste nonbait, poligono batean, adibidez. Ideia hau ez da behin betikoa.
- Mugarrak: irailerako jakingo dugu ziur aski ingurumenaren aldetik bideragarria den. Abenduan, hala bada, eraikitzeko lizentzia lortuko da. Asmoa da 2027 amaieran edo 2028 hasieran eraikitzen hastea.
- Agrovoltaikoaren kalifikazioa: ez dakit zein diren eskatzen diren ezaugarri zehatzak, baina hala izatea da asmoa. Bazkatzeko erabiliko dugun eremu bat da.
- Lurperatzea 80 zentimetrokoa izango da, ziurrenik.

ETXAURIKO UDALA

Galderak:

- Udalek nola berma dezakete gutxienez % 51ren parte-hartzea?
- Nola ziurtatu %51ko partaidetza soziala? Nolakoa izango litzateke parte-hartzea, proiektuan parte hartzeko zenbat € pentsatu dira?
- Nola eta zenbat (energia, ehunekoa) konpentsatuko da ingurumenean inbertitzeko?
- Nola ziurtatu energiaren azken erabilera?
- Garatzeko epeak?
- Nola bermatzen da legez Sarbilen beste proiektu batzuk ez garatzea?
- Ba al du udalak proiektuan erakunde publiko gisa ekonomikoki parte hartzeko asmorik?
- Balizko obra lizentziaz gain, zer onura errepikakor izango dituzte inguruko udalek parkearen bizi erabilgarrian zehar?
- Nola dago katalogatuta udal hirigintza planean proiektuaren lursaila?

Erantzunak:

- Ez dago zenbakirik. Azterketa egiten ari da. Ez dakigu zenbat itzuliko den.
- Zonalderako onura ekonomikoa eta soziala izango dela uste dugu. Ekarpena bi zentzu horietan egiten da.
- Udalak oraindik ez du baloratu parte hartuko duen ala ez. Balorazioa egingo du, hala dagokionean.
- Nola bermatu %51? enpresa txiki eta ertainekin eta partikularrekin egindako kontratuen bidez.
- Oraintxe bertan ezin dugu lurzoruaren katalogazio zehatzari buruz erantzun. Erantzuna datorren astean ekarriko dugu.
[*2026/04/27an postaz bidalitako erantzuna: ETXAURIKO HIRIGINTZA PLANA (2016ko azaroaren 9ko 11E/2016 Foru Agindua, NAO, 233. zk., 2016/12/2):
Etxaurin indarrean dagoen hirigintza-planak Sarbil mendilerroko lurzatiak katalogatzen ditu, POT3 antolamendu-planak egiten duen bezala (Eremu zentrala, Ingurumena babesteko lurzoru urbanizaezina, Lurralde Konektibitatea azpikategoria).]
- Energiaren salerosketa zirkulu zentrokideen arabera antolatuko da: lehen Etxauri eta bailara, ondoren udalerrri mugakideak eta azkenik Nafarroako gainerakoa.

ETXAURINDARRA ELKARTEA

Galdera:

- Gai honek Etxauriko udalerrian eta haranean duen garrantzia dela eta, energia komunitateak gai honi buruz jarrera bat hartzeko asmorik al du?

Erantzuna:

- Ez dago aurreikusita posizio bat hartzea epe laburrean.

ETXAURIBAR KLIMA ETA BURUJABETZA

Galdera:

- Nola bateratu trantsizio energetikoa energiaren prezioaren egungo egoerarekin?

Erantzunak:

- Arazoa energia ekoizpena handitzera eramatea da.
- Eskaintzaren eta eskariaren arteko oreka izango da arazoetako bat.
- Murriztu egin beharko dugu, (fosila murriztu eta elektrifikatu) zergen eta diru-laguntzen bidez. Trantsizio bat egin beharko da zentzu horretan.



2.5. BALORAZIOA

17 pertsonak erantzun dute balorazio-galdetegia. Hona hemen emaitzak:

Baloratu 1etik 10era:

Saioaren antolaketa	8.5
Landutako edukiak	8.4
Erabilitako metodologia	8.2
Saioaren dinamizazio lanak	8.1
Saioan egon den giroa	8.4
Balorazio orokorra	8.3

Besterik gehitu nahiko zenuke?

- Hartza gustura. Eskerrik asko

ERANSKINAK/ERANSKINAK

ETXAURINDARRA ELKARTEA:

NOR GAREN

- LEHEN PROIEKTUA_

ENERGIA KOMUNITATEA: Igerilekuetako teilatua

- PARTE HARTZAILEAK: energia komunitatean, Etxaurindarra elkartean

- LANTALDEAK:

- Egurra
- Prestakuntza
- Mugikortasuna
- “Zuhaitzak”

SARBILGO INSTALAZIO FOTOVOLTAIKOAREN GAIARI DAGOKIONEZ:

Kontatu dezakeguna da bazkide batek eskatuta batzar batean komentatu zena. Ondorio gisa:

Etxaurindarra ez da posizionatu Sarbilen proiektu fotovoltaikoari dagokionez.